

# **JARDUERA ETA INSTALAZIOEKIN LOTUTAKO ZERBITZUAK ESKAINTEAGATIKO ETA ESTABLEZIMENDUAK IREKITZEKO TASAK ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZA FISKALA. 2020. URTEA**

## **I.OINARRIA ETA IZAERA**

Lehen artikulua.— Konstituzioaren 133.2 eta 142. art.etan eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legearen 106. art.ak emandako ahalmenak erabiliz eta Toki Ogasunak arautzen dituen Foru Arauan xedatutakoarekin bat etorriz, Udal honek sailkatutako jardueren lizentziak emateagatiko eta, sailkatutako jardueren aurretiazko komunikazioko eta establezimenduak irekitzeko kasuetan, Administrazioaren kontrol-jarduerengatiko tasak ezartzen ditu, zerga ordenantzaren arauak arestian aipatutako oharmandakoari erantzungo diote.

## **II.ZERGA EGITATEA**

2. artikulua.- 1. Tasaren zerga egitateak izango da:

a) Sailkatutako jardueren eta erabilerak legeztatzeko lizentziak emateko, jardura horiek ezartzeko, horiek handitzeko edo eraberritzeko zein neurri zuzentzaileak betetzen diren berrikustea eskatzen duten establezimenduen eraberritze edo handitzeetarako udal jardura tekniko zein administratiboa. Ondore horietarako, lizentzia behar duten jardueratzat joko dira Ingurumena Babesteko otsailaren 27ko EAeko 3/1998 Lege Orokorraren II. Eranskinen A) atalean jasotzen direnak.

b) Sailkatutako jardueraren aurretiazko komunikazioa eskatzen duten jardura eta instalazioak ezarri, handitu edo eraberritzeari lotuta garatzen diren kontrolerako eta egiaztapenerako udal jardura tekniko zein administratiboa. Aurretiazko komunikazioa behar duten jardueratzat joko dira Ingurumena Babesteko otsailaren 27ko EAeko 3/1998 Lege Orokorraren II. Eranskinen B) atalean jasotzen direnak.

c) Aurretiazko komunikazioa eskatzen duten establezimenduak irekitzearekin eta jarduerak abiaraztearekin lotuta garatutako kontrolerako eta egiaztapenerako ondorengo udal jardura tekniko zein administratiboa, aipatutako 3/1998 Legearen II. Eranskinen A9 atalean jasotako sailkatutako jardueraren lizentzia daukatenak.

2. Udalaren jarduera hori subjektu pasiboak lizentzia eskatzearen edo aurretizko komunikazioa aurkeztearen ondorioz sor daiteke, edo ikuskapen-jarduketaren ondorioz, lizentziarik gabe, aurretiz komunikatu gabe edo dagokien lizentziak edo aurretizko komunikazioak guztiz babesten ez dituen jarduerak existitzen direla egiaztatzen bada.

### **III.SUBJEKTU PASIBO**

3. artikulua.- Zergei buruzko Foru Arau Orokorrak aipatzen dituen eta udal zerbitzu edo jarduerak eskatu edo horien onuradun edo eraginpeko diren pertsona fisiko eta juridikoak eta erakundeak dira zergadun subjektu pasiboak.

Administrazioaren jarduera edo zerbitzua subjektu pasiboari dagokiola eta hari eragiten diola ulertuko da, berak zuzenean edo zeharka eragin duenean, bere ekintzek edo omisioek, jarduerak ofizioz egitera edo, segurtasun, osasun eta hirigintzako ordena arrazoiengatik, zerbitzuak ematera edo bere eskumeneko beste edozein burutzerara behartzen dutenean Udalak.

### **IV.ERANTZULEAK**

4. artikulua.- 1.- Subjektu pasiboaren zerga betebeharreari solidario gisa erantzun beharko dizkiete: Zergei buruzko Foru Arau Orokorraren 41. art.ak aipatzen dituzten pertsona fisiko eta juridikoek.

2.- Zergei buruzko Foru Arau Orokorraren 42. artikuluan aipatzen diren pertsona edo erakundeak arduradun subsidiarioak izango dira.

### **V.ZERGA OINARRIA**

5. artikulua.- 1.- Irekiera tasaren zerga oinarria lokalaren izariak osatzen du metro karratutan eta Ordenantza honetan finkatutako tarifaren arabera.

### **VI.ZERGA KUOTA**

6. artikulua. - Jarduera ezberdinetako zerga kuotak kopuru finkoetan ezarrita geratu dira honako tarifen arabera:

## TARIFA

**1. Sailkatutako jardueraren aurretiazko komunikazioa** (Ingurumena Babesteko otsailaren 27ko EAeko 3/1998 Lege Orokorraren II. Eranskinetik B) atalean jasotzen diren jarduerak).

Azalerako 40m <sup>2</sup> artekoak	510 euro
Azalerako 41 m <sup>2</sup> tik 80ra artekoak	875 euro
Azalerako 81m <sup>2</sup> tik 120ra artekoak	1.166 euro
Azalerako 121 m <sup>2</sup> baino gehiagokoak	1.458 euro

Lokalak 121 metro koadrotik gorakoak direnean, 50 metro koadro bakoitzeko tarifaren gaineko %10eko gehikuntza bat aplikatuko da.

**2. Sailkatutako jardueraren lizentzia eta erabilera legeztatzea** (Ingurumena Babesteko otsailaren 27ko EAeko 3/1998 Lege Orokorraren II. Eranskinetik A) atalean jasotzen diren jarduerak).

Azalerako 40m <sup>2</sup> artekoak	2.227 euro
Azalerako 41 m <sup>2</sup> tik 80ra artekoak	3.818 euro
Azalerako 81m <sup>2</sup> tik 120ra artekoak	5.090 euro
Azalerako 121 m <sup>2</sup> baino gehiagokoak	6.363 euro

Lokalak 121 metro koadrotik gorakoak direnean, 50 metro koadro bakoitzeko tarifaren gaineko %10eko gehikuntza bat aplikatuko da.

**3. 3/1998 Legearen II. Eranskinetik A) atalean jasotzen diren jarduerak eta instalazioak irekitzeari (funtzionamendua) buruzko aurretiazko komunikazioa.**

Azalerako 40m <sup>2</sup> artekoak	1.984 euro
Azalerako 41 m <sup>2</sup> tik 80ra artekoak	3.401 euro

Azalerako 81m2tik 120ra artekoak 4.534 euro

Azalerako 121 m2 baino gehiagokoak 5.668 euro

Lokalak 121 metro koadrotik gorakoak direnean, 50 metro koadro bakoitzeko tarifaren gaineko %10eko gehikuntza bat aplikatuko da.

4. Behin lizentzia eman edo aurretiazko komunikazioa aurkeztu ondoren, establezimenduan jardueraren jardunaren baldintzak berriz aztertu eta neurri zuzentzaileak berrikusi beharra eskatzen duten eraberritze edo handitze lanak egiten badira (betiere, jarduera aldaketarik ez badago; kasu horretan, aurreko ataletako dagokion tarifa aplikatuko zaio):

1.-Beste irekitze bat izango balitz legokiekeen tasaren %20 ordainduko dute. Azalera handitzerik gabe.

2.- Azalera zabaltzen bada, tasaren zenbatekoa azalera guztiari dagokiona izango da, hasierako azalerrari dagoion zenbatekoa kenduta, eskabidea eginiko unean indarrean dagoen ordenantzaren arabera.

## **VII.SALBUESPENAK ETA HOBARIAK**

7. artikulua.— Ez da inolako salbuespenik izango Tasaren ordainarazpenean.

Tasaren kuotan %75eko hobarirako eskubidea izango dute, ezarri berriak diren eta ekintzaile berriek Getxolanen gainbegirapena eta honen aldeko aurretiko txostena dituztela bultzatutako enpresa edo merkataritzako jarduerak hasten dituzten zergadunek, 225.000 euro baino gutxiagoko katastro-balioa duten lokaletan. Hobaria onuradunak eskatu beharko du. Honek, eskabidearekin batera, Ekintzaileentzako Hobariaren Inprimakian jasotako agiriak ere aurkeztuko ditu.

Hobari hori aplikatzeko, eskaera aurkeztu beharko da lizentzia eskatzean edo aurretiazko jakinarazpena egitean, edo gehienez egindako likidazioaren aurkako errekurtsioa jartzeko epea amaitu baino lehen.

Hobari hori ez da establezimenduan ondoren egiten diren erreformei edo handitzei aplikatuko.

## **VIII.SORTZAPENA**

8. artikulua.- 1.- Tasa sortu eta zergak ordaintzeko betebeharra zerga egitatea eratzen duen udal jarduera hasten denean jaioko da. Horiek horrela, jarduera-lizentzia edo aurretiazko komunikazioarena, eskabide egokia aurkezten den datan hasiko da aipatutako jarduera subjektu pasiboak espresuki formulatuko balu.

2.- Jarduera bat beharrezko lizentzia lortu gabe edo aurretiazko komunikazioa aurkeztu gabe martxan jarri denean edo abiarazitako jarduera ez denean baimendu edo komunikatu dena, tasaren sortzapena egingo da jarduerak baldintza galdagarriak betetzen dituen zehazteko udal jarduna hasten denean; hala eta guztiz ere, administrazio espedientea hasia litekeena izango da establezimenduaren irekiera baimentzeko edo itxiera dekretatzeko irekiera ezinezkoa den kasuetan.

## **IX.AITORPENA**

9. artikulua.- 1.- Industri edo merkataritzako establezimendu bat ireki nahi duten pertsonak, aurretiaz, eskabide egokia aurkeztuko dute Erregistro Orokorrean, argi eta garbi zehaztuz alogera kontratuaren edo eskuraketa tituluaren jarduera edo jarduerak; gainera, establezimenduaren metro karratuen kopurua adierazi beharko da ezinbestean.

2.- Irekiera lizentzia eskabidea egin ondoren establezimenduan egin beharreko jarduera zabaldu edo aldatuko balitz edo, establezimenduak aurreikusitako baldintzak aldatuko balira edota, hasieran aurreikusitako lokala zabalduko balitz, aldaketa horiek guztiak Udal Administrazioari jakinarazi beharko zaizkio aurreko zenbakian agindutako aitorpenean eskatzen diren zehetasun eta erdiespen guztiekin.

## **X.-KUDEAKETA**

10. artikulua.- Jarduera-lizentzia aurretiazko komunikazioak ordezkatzeko duen kasuetan, jarduera-lizentziaren eskaera eta Administrazioaren kontroleko jarduerak auto-likidazioko sistema bidez kudeatuko dira; auto-likidazio hori subjektu pasiboak gauzatuko du eskaera edo komunikazio hori aurkezterako unean, Udal Administrazioak emango dion eredu ofizialaren arabera. Ondoriozko kuotaren ordainketa auto-likidazioetarako adierazitako epean eta moduan egingo da.

Aurrekoa ez beste kasuetan, Udalak likidatuko du tasa eta subjektu pasiboari jakinaraziko dio, ordaintzeko epea eta modua adieraziz.

Auto-likidazioa udal zerbitzuek egiaztatuko dute eta, beharrezkoa balitz, likidazio osagarri bat egingo litzateke.

## **XI.URRATZEAK ETA ZEHAPENAK**

11. artikulua. Zerga-urratzeei dagokienez eta kasuan kasuko zehapenei dagokienez, Zergei buruzko Foru Arau Orokorraren 183 eta ondorengo art.etan xedatutakoari jarraituko zaio.

## **XII.AZKEN XEDAPENA**

Ordenantzaren oraingo testua Udalaren osoko Bilkurak onartu zuen 1989ko irailaren 29an eta 1990eko azaroaren 30eko, 1992ko abenduaren 20ko, 1992ko azaroaren 27ko, 1993ko azaroaren 26ko, 1995eko azaroaren 24ko, 1996ko apirilaren 29ko, 1997ko urtarrilaren 31ko, 1997ko abenduaren 19ko eta 1998ko abenduaren 18ko, 2003ko azaroaren 28ko, 2004ko azaroaren 26ko, 2005eko azaroaren 25eko, 2006ko abenduaren 22an, 2009ko maiatzaren 29an, 2014ko apirilaren 29an, 2018ko urtarrilaren 31an, Bilkura-akordioen bidez aldarazia izan zen. Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da eta bere argitalpenaren ondoko egunean indarrean sartuko da, momentu horretatik aurrera aplikatuta eta indarrean iraungo du bere aldarazpena edo indargabeketa erabaki arte.